



alzheimer

DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA



Zer da dementzia?

Dementzia garuneko zelulen (neuronen) gaixotasun degeneratiboa da, progresiboa eta jatorri ezezagunakoa. Eragiten duen hondatzeak pertsonaren gaitasun funtzionalak kaltetu eta pertsonaren jarduera sozio-laboralak oztopatzen ditu.

Zertan datza Alzheimer motako dementzia?

Dementzia-mota arruntena da: dementzien %60-80 inguru. Alzheimerren gaixotasuna neuronen heriotzari lotzen zaio, haril neurofibrilarrak deituriko proteina-zuntzen masa desantolatua sortzearen ondorioz.

Pronostikoa eta tratamendua

- Pronostikoa gaixotasuna eragiten duen arrazoiaren eta tratamendu eraginkorra aplikatzearen araberakoa da.
- Gaur egun ez dago gaixotasuna sendatzeko tratamendurik, baina ikerketa asko daude martxan arlo honetan.
- Tratamenduek bi helburu dituzte:
 - Gaixotasunak ahalik eta mantoen aurrera egitea.
 - Gaixoaren eta familiaren bizi-kalitatea hobetzea.
- Farmakologikoak ez diren tratamenduak ere badaude, beste tratamenduekin konbinatuta efikazak izan daitezkeenak; horien artean daude, besteak beste: psikoestimulazio kognitiboa, errealitatean orientatzeko teknikak, ergoterapia eta musikoterapia.

Nola eboluzionatzen du Alzheimerren gaixotasunak?

- Gaixotasunaren eboluzioa laburrakoa edo luzeakoa izan daiteke.
- Eboluzioa eta fase bakoitzeko sintomak ezberdinak dira gaixoaren arabera.
- Fase batetik besterako nola igarotzen den argi definitu gabe dago, baina, orokorrean, hiru fase bereizi ohi dira:

1 FASE ARINA

Ager daitezkeen sintomak

- Memoria galtzea: batzuetan gauzak ahaztea.
- Hitz egiterakoan eta hizketa ulertzeko orduan zailtasunak izatea.
- Leku-orientazioaren galera.
- Autoestimua galtzea, larritasuna eta agitazioa.

Aholkuak:

- Lehendabiziko sintomak agertzean, joan osasun-zentrora, diagnostikoa ezartzeko.
- Ez ezkutatu (familiakoei edo lagunei) diagnostikoa.
- Etxeko lanetan lagundu gaixoari eta gainbegiratu berak egiten dituenean.
- Adi egon zaitez gaixoaren desorientatzeko arriskuarekin, galdu daiteke eta.

Erabili beharreko baliabideak:

- **Zure udaleko gizarte zerbitzuetara joateko mementoa da, aholkularitza eskatzera.**
- AFAGI (Gipuzkoako familiartekoen elkarte) bezalako elkarteetara jo laguntza eske. Bertan badira gaixo eta familiarrei laguntzeko eta gaixoen ordezkaritza eta babeserako jarduerak.
- Gaixoa galduz gero, deitu 112 telefonora, bilaketa-lanak hasi ahal izateko.

2 FASE MODERATUA

Ager daitezkeen sintomak:

- Memoriaren eta orientazioaren alterazio larriak.
- Komunikazio-arazoak (mutu egotea, hitzak errepikatzea, elkarriketa bat ezin jarraitua).
- Higiene pertsonala, mugikortasuna eta janzea bezalako ekintzetarako laguntza behar izatea eta mendeko bihurtzea.
- Portaeraren alteraziok: haluzinazioak, eldarnioak eta desinhibizioa.

Aholkuak:

- Gaixo batekin bizi garela ulertu eta onartu behar dugu eta egiten dituen gauza asko ez direla boluntarioak baizik eta gaixotasunaren ondorioz eginak.
- Gaixoaren autonomia sustatu.
- Arriskua eduki dezaketen egoerak saihestu, adibidez autoak gidatzea, etxeko aparatuek erabiltzea, gasa maneiatzea...
- Etxebizitza egokitu.

Erabili behar diren baliabideak:

- Existitzen diren errekurso eta laguntzez informatu (AFAGI).

3 FASE LARRIA

Ager daitezkeen sintomak:

- Adimen-narritadura larria.
- Ezintasun oso markatua.
- Eguneroko bizitzako jarduera guztietarako laguntza behar izatea eta erabat mendeko bihurtzea.
- Eginkari-inkontinentzia eta txiza-jarioak.
- Irensteko ezintasuna, eta janaria eta, batez ere, likidoak kontrako eztarritik joatea. Janaria baztertzeta.
- Pasibotasuna eta ezegonkortasuna; gaixoak ez ditu bere inguruko pertsonak ezagutzen, baina ukitzea eta maitasuna preziatzen ditu.

Aholkuak:

- Gaixotasunaren eboluzioa okertuko duten konplikazioak saihesten saiatu, adibidez oheratua egoteagatik azaleko ultzerak agertzea eta jatearekin aspirazioak egitea.
- Oheratuta egonez gero luzaroan, postura aldatu maiz.
- Eman jaten Fowler-en jarreran (eserita). Jan ondoren gaixoa 30-60 minutuan mantendu jarrera horretan.

Erabili behar diren baliabideak:

- Existitzen diren baliabideez informatu (AFAGI).

Interesezko helbideak:

AFAGI (Asociación de familiares de Enfermos de Alzheimer y otras demencias de Gipuzkoa).

Resurrección M^a de Azkue kalea 32, behea

20018 Donostia.

Telefonoa: 943 321977

E-maila: afagi@afagi.org/www.afagi.org

F. HURKOA (ahultasun, dependentzia eta babes gabe dauden pertsona heldu eta gaixotasun mentalak dauzkatenentzako fundazioa da, arreta, babes eta tutoretzaz arduratzen dena).

Gernikako arbolaren pasealekua 16

20006 Donostia.

Telefonoa: 943 468 956

Faxa: 943 466 714

E-maila: idazkari@hurkoa.org

Alderdi etiko eta legalak:

- Saiatu pazientearen autonomia mantentzen ahalik eta gehien.
- Erabakiak hartzeko orduan gaixoari parte harrarazi, ahal den heinean.
- Beharrezkoa denean, neurriak hartu lege-arloan gaixoa babesteko.

Denbora aurrera doan heinean Alzheimerren gaixotasuna duen paziente baten erabakiak hartzeko ahalmena gutxitzen doa. Horregatik, garrantzitsua da **Aldez aurreko Borondateen Agiria** betetzeko aukera kontuan hartzea. Gaixoaren ardura duen medikuari zuzendutako agiri bat da, judizialki ezgaitua izan ez den din nagusiko pertsona batek, modu askean eta lege-baldintzak betez, egiten duena. Bertan gaixoak, egoera zehatz batetan bere nahia adierazi ezin badu, zer argibide eta agindu bete behar diren adierazten du. Dokumentu horretan gaixoak pertsona bat edo gehiago izendatu ditzake talde mediko eta sanitarioekin solaskide gisa jarduteko.

